SOPUERTAKO UDALARI EMANDAKO BI FINKA ALTAN EMATEKO.**

[...]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du Ondasunen Udal Inbentarioaren zuzenketa onestea, donazio bidez eskuratutako bi finka hauek gehitzeko:

Bat.- Baluga auzoko finka, 554,04 m²-koa. 8 zenbakiko UEReko mugaketaren barneko bizitegi-lurzorua da. Finkaren deskribapena, mugakideak, zuzkidura eta balorazioa (311.038,39 €) ezaugarrien fitxan jasotzen dira; eta

Bi. - Crucero eta Los Cotarros auzoetako (herrigune ez-emankorra) 5. poligonoko 180 zenbakiko landa-finka, 852 m²-koa. Bertan bi eraikuntza daude. Finkaren deskribapena, mugakideak, zuzkidura eta balorazioa (62.211,24 €) ezaugarrien fitxan jasotzen dira.

4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALARI BURUZKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKORAKO INGURUMEN-DOKUMENTU ESTRATEGIKOA, LOS COTARROS LANDAKO AUZOAN (MERCADILLO) BIRIBILGUNE BAT JARTZEKO BIDE-SISTEMA OROKOR BERRI GISA.

[...]

Korporazioa osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak honako hau erabaki du:

Onestea, bidezkoa bada, Sopuertako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren dokumentua, Los Cotarros landako auzoan (Mercadillo) biribilgune bat jartzeko bide-sistema orokor berri gisa; eta

Onespenari buruzko erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzea, ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera, Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala onesteko.

5.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALARI BURUZKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKORAKO INGURUMEN-DOKUMENTU ESTRATEGIKOA, SANTA ANA AUZOAREN ALBOAN EREMU LIBREEN SISTEMA OROKOR BAT MUGARRIZTATZEKO, BAI ETA 8 ZENBAKIKO UER-aren ALDAKETA SUBSIDIARIOA ERE.

[...]

Bertaratuek aho batez erabaki dute Sopuertako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko ingurumen-ebaluazio estrategikorako ingurumen-dokumentu estrategikoa onestea, Santa Ana auzoaren alboan eremu libreen sistema orokor bat mugarriztatzeko, bai eta 8 zenbakiko UER-aren aldaketa subsidiarioa ere.

Onespenari buruzko erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzea, ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera, Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala onesteko.

6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ARDURALDI PARTZIALEKO KARGUA BETEKO DUEN ZINEGOTZIA ETA HAREN ORDAINSARIAK ZEHAZTEA.

[...]

Eztabaida hasi denean, alkateak eskatu du puntu hau eguneko aztergaien zerrendatik kentzeko, Toki-erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiko 92. artikuluari jarraikiz. Izan ere, proposamena aldatu, txosten gehiago gehitu

eta alderdiren bat zehaztu nahi dira. Korporazioko gainerako kideak ados agertu dira, eta hortaz, aho batez eguneko aztergaien zerrendatik kendu da gaia.

7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO ERABILERA PUBLIKOKO MENDIETAN 26 LOTE ESLEITZEA.

[...]

Bertaratuek, aho batez, honako hau erabaki dute:

LEHENENGOA. - Esleitzea enkantera ateratako 12 baso-aprobetxamenduren besterentzea, zerrenda honen araberako zenbatekoetan eta esleipendunekin:

6 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, J.A.M.T. jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Rosario. Nitens eukaliptoa. Explotaciones Forestales La Bella SLri esleitu zaio, 2.026 €-an, gehi BEZaren 425,46 €. Guztira: 2.451,46 €.

7 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, C.F.Y. andrearekin partzuergoan. Ingurua: Hormanza-El Engarzo, 18 pol., 220 lurs., 3 bik. Globulus eukaliptoa. Explotaciones Forestales La Bella SLri esleitu zaio, 2.650 €-an, gehi BEZaren 556,5 €. Guztira: 3.206,5 €.

8 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, M. neba-arrebekin partzuergoan. Ingurua: Carrascal. Radiata pinua. Maderas Portillo enpresari esleitu zaio, 14.100 €-an, gehi BEZaren 2.961 €. Guztira: 17.061 €.

9 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, E.E.G. jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Las Viñas – El Sel R17/336/2. Globulus eukaliptoa. Explotaciones Forestales La Bella SLri esleitu zaio, 4.001 €-an, gehi BEZaren 840,21 €. Guztira: 4.841,21 €.

13 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, J.J. jaunarekin eta R.R.T. andrearekin partzuergoan. Ingurua: Soldevilla R14/199/14. Radiata pinua. Ecofor XXII SLri esleitu zaio, 32.601 €-ko zenbatekoan, gehi BEZaren 6.846,21 €. Guztira: 39.447,21 €.

14 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, J.S.V.A. jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Soldevilla R13/96/1. Radiata pinua. Maderas Portillo enpresari esleitu zaio, 14.030 €-an, gehi BEZaren 2.946,30 €. Guztira: 16.976,30 €.

15 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, J.J.R.S jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Soldevilla. Radiata pinua. Maderas Portillo enpresari esleitu zaio, 14.101 €-an, gehi BEZaren 2.961,21 €. Guztira: 17.062,21 €.

20 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa. Ingurua: Picoiaia. Radiata pinua. Olmos Forestal SLri esleitu zaio, 122.000 €-an, gehi BEZaren 25.620 €. Guztira: 147.620 €.

21 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa. Ingurua: Villar 1 lotea. Radiata pinua. Ecofor XXII SLri esleitu zaio, 44.616 €-ko zenbatekoan, gehi BEZaren 9.369,36 €. Guztira: 53.985,36 €.

22 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa. Ingurua: Villar 2 lotea. Radiata pinua. Ecofor XXII SLri esleitu zaio, 72.755,75 €-ko zenbatekoan, gehi BEZaren 15.278,71 €. Guztira: 88.034,45 €.

23 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa. Ingurua: Soldevilla. Radiata pinua. Maderas Portillo enpresari esleitu zaio, 15.900 €-an, gehi BEZaren 3.339 €. Guztira: 19.239 €

24 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, J.S.O. jaunarekin eta I.S.A. andrearekin partzuergoan. Ingurua: Soldevilla R14/199/4. Radiata pinua. Ecofor XXII SLri esleitu zaio, 21.001 €-ko zenbatekoan, gehi BEZaren 4.410,21 €. Guztira: 25.411,21 €.

BIGARRENA. - Prozedura honetan sartutako baso-aprobetxamenduen 14 lote hauen besterentzearen esleipena huts deklaratzeari, ez baita horien gaineko eskaintzarik aurkeztu:

1 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, D.A.N. jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Arenao. Tasazioa: 5.184 €. Radiata pinua.

2 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, J.M.P.F. jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Santa Lucía-Castañuelo. Tasazioa: 6.943 €. Radiata pinua.

3 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, J.J. jaunarekin eta R.R.T. andrearekin partzuergoan. Ingurua: Traslaviña. Tasazioa: 4.071 €. Radiata pinua.

4 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, F.O.R. jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Arenao. Tasazioa: 7.713,90 €. Radiata pinua.

5 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa. Ingurua: La Calzada. Tasazioa: 4.784 €. Radiata pinua edo itsas pinua.

10 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, J.L.S.G. jaunarekin, I.D.J.M. andrearekin eta M.N.S.O. andrearekin partzuergoan. Ingurua: Cabeza Monte 1 lotea R09/175/19. Tasazioa: 25.602 €. Radiata pinua.

11 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, J.L.S.G. jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Cabezamonte 2 lotea R09/175/18. Tasazioa: 15.576 €. Intsinis/radiata pinua.

12 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa. Ingurua: Alen gailurra. Tasazioa: 18.793,50 €. Radiata pinua.

16 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, N.V.U. andrearekin partzuergoan. Ingurua: Las Muñecas R02/115/8 R02/117/17. Tasazioa: 2.900 €. Radiata pinua eta Globulus eukalipto.

17 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, R.I.U. andrearekin partzuergoan. Ingurua: Llano R03/324/4 eta 5. Tasazioa: 3.365 €. Radiata pinua eta Globulus eukalipto.

18 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, E.B.L. jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Tocado 6 pol., 173 lurs. Tasazioa: 22.539,50 €. Radiata pinua.

19 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa. Ingurua: Alen. Bideen artean. Tasazioa: 22.928,40 €. Radiata pinua.

25 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, nahi duenak hartzeko. Ingurua: Arce-Tocado auzoa. Tasazioa: 2.490 €. Radiata pinua.

26 ZENBAKIKO LOTEA: Udalaren jabetzakoa, O.D.L. jaunarekin partzuergoan. Ingurua: Galicia auzoa – La Tejera R01/187/13. Tasazioa: 6.312 €. Radiata pinua eta Globulus eukalipto.

HIRUGARRENA. - Ebazpen hau jakinaraztea interesdunei eta Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Saileko Baso Zerbitzuari. Esleipendunei eskatzen zaie aprobetxamenduetarako baldintza tekniko eta baldintza ekonomiko-administratiboen pleguetan ezarritako betekizunak bete ditzaten. Eta,

LAUGARRENA. - Baso Zerbitzuari esleitu gabe geratu diren loteei buruzko txostenak eskatzea, eta bidezkoa bada, prezioak berrikustea eta hurrengo enkanteren batean sartzeko aukera aztertzea. Bestela, prozedura berri batean tasazioaren prezioan eta baldintza berdinetan esleitu liteke.

8.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA SOPUERTAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, DATUAK BITARTEKO ELEKTRONIKO BIDEZ TRUKATZEKO, BAI ETA BISCAYTIKEKIN HITZARMEN ESPEZIFIKOA SINATZEA ERE, ZERBITZU ZEHATZ BATZUK JASO AHAL IZATEKO.

[...]

Bertaratuek, aho batez, honako hau erabaki dute:

LEHENENGOA. - Onestea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Sopusertako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, datuak bitarteko elektronikoki trukatzeko.

Hitzarmenaren hamahirugarren klausulan jasotzen da Sopuertako Udala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Estatuko Administrazio Orokorrak 2017ko martxoaren 24an sinatutako hitzarmenarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek (haien artean ere bai, informazioa bitarteko elektronikoko bidez trukatzeko) 2015eko azaroaren 6an sinatutako hitzarmenarekin bat egiten duela. Eta,

BIGARRENA. - Onestea Biscaytikek eta Sopuertako Udalak sinatutako hitzarmen espezifikoa, Udalak Biscaytik sistema informatikoko zerbitzu batzuk jaso ahal izateko.

9.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTA ITALIAKO FLUMINIMAGGIORE UDALERRIAREKIN SENIDETZEA, ETA ALKATEARI BAIMENA EMATEA SENIDETZE-JURAMENTUA SINATZEKO.

[...]

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute Fluminimaggiore udalerraren (Sardinia, Italia) eta Sopuerta udalerraren (Euskadi, Espainia) arteko senidetzea onestea, eta alkateari baimena ematea senidetutako udalerriko alkatearekin batera senidetze-juramentua sinatzeko.

10.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO UDALAK BAT EGITEA AMNISTIA INTERNAZIONALAK SUSTATUTAKO ETA SANT EGIDO KOMUNITATEAK ABIARAZITAKO HERIOTZA-ZIGORRAREN AURKAKO KANPAINAREKIN.

[...]

Bertaratuek, hau da, Korporazioko hamaika zinegotziek, aho batez erabaki dute Sopuertako Udalak kanpainarekin bat egitea. Sant Egidio komunitatearen ekimena da, Amnistia Internazionalak sustatutako "Bizitzaren aldeko hiriak" ekintzaren esparruan. Kanpainaren bidez heriotza-zigorraren aurka egiten da, eta hori erakusteko azaroaren 30ean (osteguna) udalerriko eraikin adierazgarri bat argizatuko da.

11.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZAROAREN 25eko "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA" ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN EREDUA, EUDELEK ETA EMAKUNDEK ADOSTUA.

[...]

Bertaratuek aho batez erabaki dute onestea azaroaren 25eko "Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna" dela-eta Eudelek eta Emakundek elkarrekin adostu eta proposatutako adierazpen instituzionala:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:
“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”.

Begirada berria emakumeen aurkako indarkeriari

Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu badagoela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeke dugu konpromisoa oinarritzat hartuz, dagokigun erronka da erreparazio-eskubidea emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean sartzeko. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da ahotsa eta protagonismoa ematea, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera.

Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irtendakoak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek guztiak sistematikoki aztertuz.

Beraz, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, honakoa agertzen dugu:

Gure konpromisoa agenda politikoan indarkeriak eragindako emakume biktimekiko erreparazio-eskubidearen aitortza eta horri buruzko hausnarketa sartzeko, guztiz osatu daitezten eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.

Gure konpromisoa udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeke edo, hala badagokio, abian jartzeko, indarkeria matxistari aurre egitea xede, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin batera, bai halaber gizarte zibilarrekin eta herritarrekin oro har.

Gure konpromisoa gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezten.

Eta gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, beharrezkoak diren baliabideak eskura izan daitezten, xede izanik emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazten aurrera egitea.

12.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, NAGUSIAK ADINEKOEN TALDEAK ETA “PABLO PUERTO” ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

[...]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du onestea “Nagusiak” adinekoen taldeak Sopuertako erretiratuen “Pablo Puerto” elkartearekin batera aurkeztutako mozioa. Honako hau dio:

“NAGUSIAK adinekoen taldearen eta Sopuertako erretiratuen “Pablo Puerto” elkartearen (Bizkaia) izenean, Bizkaian elkartekide diren 52.000 lagun ordezkatzuz –112 udalerritako 140 elkartetan bilduta, eta pentsio duin, bakar eta unibertsala eskatzen duen pentsiodun talde konprometitu batez osatua– zuregana jotzen dugu, hitzez hitz honako hau dioen MOZIO hau aurkez dezazun:

8. *Saihestea, 2018. urterako aurreikusi diren Estatuko Aurrekontu Orokorrek are larriago bihurtzea pentsioen egoera, Konstituzioan jasotako betekizunak urratuz.*

9. *Pentsioen hazkundea KPIren hazkundearekin lotzea; izan ere, datorren ekitaldirako aurreikusi den KPI-igoeratik oso urruti geratzen da pentsioen 0,25eko igoera; izan ere, gutxi gorabehera % 2 inguru igoko dela aurreikusi da.*

10. *Estatuko Administrazio Orokorriari eskatzea ez dezala aplikatu Iraunkortasun Faktorea; izan ere, pentsio unibertsalak urratzea eragingo du, % 18 eta % 20 bitarte.*

11. *Pentsiodunen eskubideen gain eragina duten erabaki politiko guztietarako baliozko solaskidetzat aintzatestea, bai erakunde hau, bai antzeko ordezkariak duten beste batzuk.*

12. *Pentsioen arloko legeria berria negoziatzea, gaur egungoa (2013koa) ordezkatzeko, pentsiodunen ordezkariak solaskide izanik.*

13. *Konstituzioaren manua betetzea; hain zuzen, pentsiodunei behar beharrezko ekonomikoa, pentsio egoki eta aldi behin eguneratuen bidez. (Konstituzioaren 50. artikulua).*

14. *Onesten ez bada, adeitasunez eskatzen dizugu gure eskaera aintzat ez hartzeko arrazoiak azaltzea.*

13.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA, MERCADILLOKO ELIZAKO PLAZA PUBLIKOA “IÑAKI F. CAPETILLO PARROKOAREN PLAZA” IZENDATU, ETA CARRAL ELIZAREN ALBOKO PLAZA PUBLIKOA “FRANTZISKO GARAI PLAZA” IZENDATZEKOA.

[...]

Alkatearen proposamena:

Gure herrian guztiok dakigun moduan, duela zenbait egun meza bat egin zen Carraleko eliza katolikoan, Bilboko apezpiku Mario Iceta jauna buruan, Iñaki Franco

Capetillo herriko parroko erretiratuaren omenez, apaiz ordenak hartu zitueneko hirurogeigarren urteurrena ospatu, eta Mercadilloko Gure Amaren Eliza Santuan lehen meza eman zuenetik hirurogei urte baino gehiago igaro direla ere ospatzeko.

Parrokietako herritarrek eta apezpiku jaunak hainbat opari eman zizkioten, eta alkate jaunak Udalaren eskultura alegoriko bat oparitu zion halaber. Horrenbestez, emozio handia eragin zuten omenduarengan, adinean aurreratua baitago, eta bertaratutako jendearen artean.

*Beraz, gure parroko **Iñaki F. Capetillo** oso maitatua, errespetatua eta ezaguna denez gure herrian, gure komunitaterako eredu bikain eta akatsik gabea izan denez zentzu guztietan, eta, horrez gain, gure herrikoa denez jatorriz, eta garai hauetan eredu horiek hain urriak direnez, jokabide eredugarri horiek saritzeko proposamena egiten diogu Udalaren Osoko Bilkurari, haren oroitzapena eta gure herriaren esker ona hilezkortzeko, Mercadilloko Gure Amaren Eliza Santuaren plazari haren izena jarriz; hau da, **Iñaki F. Capetillo** plaza. Izan ere, hantxe eman zuen bere lehenengo meza duela orain hirurogei urte baino gehiago.*

Keinu horrekin, gure herriak agerian uzten du eskuzabala dela besteekiko eskuzabal direnekin edo jendaurrean aitortzeko moduko ekintzak edo egitandiak egin eta gure herriko historia luzearen zerrenda ohoragarri eta bikainean sartuko direnekin.

Gauza bera gertatzen da, arrazoi osoz gertatu ere, Frantzisko Garai aitzindariarekin, "Enkarterritik Amerikarako" lehen euskal esploratzailearekin. Sopusuertakoa jatorriz –Sopusuertako Amez auzoan oraindik zutik den XIII. mendeko Garai Dorrekoa, hain zuzen–, 1493. urtean Kristobal Kolonekin ontziratu zen Sevillako Guadalquivir ibaian, haren bigarren itsas-bidaian, hamazazpi itsasontzi eta mila eta berrehun gizonekin batera Amerikak ezagutzera. Florida, Texas, Kalifornia eta Kalifornia Beherea kolonizatzen hasi, eta Panuco ibaira arte iritsi ziren, Mexikoko golkoaren erdian.

Amerikako lurralde-plano guztietan eta mundu osoan, Garairen lurralde gisa ageri dira hark kolonizatutako lurak. Aitzindari eta Errege Katolikoek bazkide Ameriketara aurkitutako guztirako, lur horietako gobernadore izendatu zuten. Mexikon hil zen, 1523ko abenduaren 24an. Txit prestutzat izendatu zuten, eta mundu osoan jaso du aitortza.

*Beraz, eta halako egitandien merezimendu gisa, proposatzen da hari eskaintzea Carraleko Eliza Santuaren alboko plaza publikoa, "**Frantzisko Garai plaza**" izena jarriz, horixe baitu jatorri eta hor Erdi Aroko eskultura alegoriko bat baitago jadanik.*

Berriz ere diogu keinu horrekin gure herriak agerian uzten duela eskuzabala dela besteekiko eskuzabal direnekin edo jendaurrean aitortzeko moduko ekintzak edo

egitandiak egin eta gure herriko historia luzearen zerrenda ohoragarri eta bikainean sartuko direnekin.

[...]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du “**On Iñaki F. Capetillo plaza**” izena ematea Mercadilloko elizaren plaza publikoari, eta “**Frantzisko Garai plaza**” izena ematea Carraleko elizaren alboko plaza publikoari.

14.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, URRIAREN 18ko 663/17 ALKATETZAREN DEKRETUA, SOPUERTAKO ALEN ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA EMAN, ETA ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOA BABESTU ETA KUDEATZEKO KULTURA-JARDUERAK FINANTZATZEKO OINARRIAK ONESTEN DITUENA.

[...]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du berrestea urriaren 18ko 663/17 alkatetzaren dekretua, Alen kultur elkarteari diru-laguntza ematea ebazten duena, 2017. urtean jarduerak egiteko.

15.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, AZAROAREN 13ko 721/17 ALKATETZAREN DEKRETUA, LANBIDEREN 2017ko DEIALDIAREN BABESPEAN KONTRATATZEKO LANGILEAK HAUTATZEKO IRIZPIDE ETA PUNTUAZIOA ONARTZEN DITUENA.

[...]

Bertaratuek aho batez berretsi dute azaroaren 13ko 721/17 Alkatetzaren Dekretua, non erabakitzen baita oniritzia ematea langileak aukeratzeko oinarriei, aldi baterako lan-kontratua duten peoi kategoriako bi plaza betetzeko, Eusko Jaurlaritzak Lanbideren 2017ko diru-laguntzaren bidez.

16.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA ZUZENEAN EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK, ETA 2017 EKITALDIKO JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZA EMATEA.

[...]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du oniritzia ematea Sopuertako ehiza- eta arrantza-elkarteari diru-laguntza zuzenean emateko indarrean diren oinarriari, eta diru-laguntza ematea, 1.210 euroko laguntza ekonomikoa emanez, 2017 urtean diruz lagundutako jardueren kostua hein batean ordaintzeko.

17.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, PABLO PUERTO ERRETIRODUNEN ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA ZUZENEAN EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK, 2017 EKITALDIKO JARDUEREN GASTUAK FINANTZATZEKO.

[...]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du onestea Sopuertako Pablo Puerto erretirodunen elkarteari diru-laguntza zuzenean emateko indarrean diren oinarriak, eta diru-laguntza ematea, 4.122,20 euroko laguntza ekonomikoa emanez, diruz lagundutako jardueren kostua hein batean ordaintzeko.

18.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO UDALAREN 2017ko GIZARTE-LARRIALDIKO EZOHIKO UDAL-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK.

[...]

Bertaratuek, hasiera batean, aho batez onetsi dituzte Sopuertako Udalaren 2017ko gizarte-larrialdiko ezohiko udal-laguntzen oinarri arautzaileak. Oinarri horiek arautuko dituzte diru-laguntzak. Hasiera batean onesteko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da.

Aldi berean, iragarki-taulan jakinaraziko da oinarrien onespina eta eskaerak aurkezteko epea, zeina abenduaren 15ean amaitzen baita. Konkurrentzia bidezko emakida bertan behera geratuko da orain hasiera batean onetsitako oinarrien aurkako erreklamazioak jartzen badira.

19.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SENTSIBILIZATZEKO ETA BOLUNTARIOTZA SOLIDARIOA GARATZEKO PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK, ETA DEIALDIA JAKITERA EMATEA.

[...]

Bertaratuek, hasiera batean, aho batez onetsi dituzte sentzibilizatzeko eta boluntariotza solidarioa garatzeko proiektuetarako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak, eta aldi bereran, jakitera ematen da horiek norgehiagoka-prozedura bidez esleitzeko deialdia, aurrekontuko kreditua agortu arte.

Oinarriak hasiera batean onesteko erabakia eta diru-laguntzak emateko deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta korporazioaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko dira.

20.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, HIRU MERKATARITZA-SOZIETATEREN ALDEKO KREDITUAK EPAIZ KANPO AITORTZEA, ALDEZ AURRETIK KONTRATUA IZAN GABE AURKEZTUTAKO FAKTURAK DIRELA ETA.

[...]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du fakturak onestea eta hirugarren hauen aurrean betebeharra aitortzea [...]

KONTROLERAKO GORDETAKO ZATIA.

21.- AZKEN OSOKO BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN KONTU EMATEA, LABUR-LABUR.

22.- PENSIO-SISTEMARI BURUZKO ORDEZKO MOZIOA, EAJren PROPOSAMENEZ.

Begoña Dieguez Muñecas andreak eman dio gaiari hasiera, proposamena egiten duen taldearen izenean mozioaren testua irakurritz:

“1. Botere publikoei neurriak har ditzatela eskatzea, pentsio duinak oinarri izango dituen pentsio-sistema publiko bat bermatzeko, sistema iraunkor baten esparruan.

2.- Ulertzea elkartasuna eta gardentasuna izan behar direla pentsio-sistema publiko horren ezaugarriak, halako moduz non pentsio duinak eta aurreikusteko modukoak bermatuko baitzaizkie sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko onuradunei, finantzaketa-iturri ziurrak euskarri dituen sistema baten esparruan.

3.- Adieraztea Espainiako Konstituzioaren 50. artikuluan ildo horretan xedatutakoaren baldintzetan ulertu behar dela pentsio egokien bermea; horrek esan nahi du aldika gaurkotu beharko direla, eta prezioen bilakaerarekin (KPI) lotu beharko dela horien hazkundera.

4.- Sustatzea, era berean eta belaunaldi arteko elkartasunaren esparruan, hartuko diren neurriek pentsio-sistema publikoaren gaur egungo eta etorkizuneko finantzaketa bermatu behar dutela; horretarako, finantzaketa-iturriak aurretik zehaztera joko duten erabakiak hartu behar dira, eta haietan txertatu behar dira hobetzeko jarduketak, negoziazio kolektiboarekin lotutako enplegu-sistema osagarrien bidez.

5.- Sustatzea, Gernikako Autonomia Estatutuaren 12.2 artikuluan eta bosgarren xedapen gehigarrian Euskal Autonomia Erkidegoari aitortutako eskumenen esparruan, gizarte-segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketa gardena, pentsioen sistema publikoa kudeatzeko euskal esparrua bultzatu ahal izateko.

6.- Erabaki hau Toledoko Itunaren batzordeari helaraztea, adierazi diren irizpideei erreparatuz osa dezan bere uste sendoa”.

[...]

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du onestea “PENSIO-SISTEMEI BURUZKO ORDEZKO MOZIOA”. EAJ-PNVk aurkeztu du, gai-zerrendako 12. puntuan jorratu den NAGUSIAK aurkeztutako mozioari erantzuna emanaz.

GALDE-ESKEAK.

23.- GALDE-ESKEAK.